

# HERNANIKO kronika

2003 urtea  
Martxoak 26  
Asteazkena  
Alea: 728  
www.kronika.net

ANTZERKI ASTEA -ENKO OLASAGASTI ('METXA' ANTZEZLANEKO ZUZENDARIA):

## “Euskaldunon izaerari buruzko gogoeta egiten du Metxak”

■ Koldo Izagirrearen liburuan oinarrituta egindako antzezlana da ■ Ironia handia, garratzasuna, senti-beratasuna, sotiltasuna, eta abar nahasten dira, Olasagastiren hitzetan ■ Gaur 20:00etan, Biterin.

ANTZERKI Astea gaur hasiko da Biterin, *Metxa* antzezlarekin. Koldo Izagirrearen liburuan oinarrituta Eneko Olasagastik egokitu eta egindako antzezlana da *Metxa*, aurtengo Korrika kulturalerako sortua. *Metxak* Gerra Zibila pasatako aitona baten historia kontatzen du, memoria ahula, baina, memoria historiko handia duen aitona baten historia. Euskaldunon izaera azaltzen du *Metxak* Olasagastik berak Kronikari esan dienez: “gure izaera azaltzen du ironiaz eta garratzasunez eta zer pentsatua ematen du”. Izen haundiko antzezleek hartzen dute parte: Joxe Ramon Soroiz, Xabier Sarasola, Aizpea Goenaga, Ramon Agirre, eta Jose Cruz eta Ainara Gurrutxaga.

### Hamaika emankizun

Korrika kulturalaren barruan 11 emankizun eman ditu Tentazioa taldeak *Metxa*-rekin. Jende izugarri ibili ez bada ere gustora dago Olasagasti “azken boladan ez da jende asko joaten horrelako emankizunetara, baina, gu gustora gaude 300 bat ikusleren bueltan baikabiltza emanaldiko. Korrika kulturalerako emanaldiak bukatu ditugu, baina, orain segitzeko asmoa dugu, gaur Hernanin hasita”. Antzerkia gaur 20:00etan da Biteriko Areto Nagusian. Sarrerak Biterin bertan daude salgai, 4,5 eurotan.

### Hiru antzerki

Gaurko antzezlanaz gain, ostegunean *Ai Ama!* eta ostiralean *Punto Rabo* obrak ere



Joxe Ramon Soroiz eta Aizpea Goenaga, 'Metxa'n.

egingo dituzte Hernanin, Hika eta Markeliñe antzerki taldeek. Bi antzerkiak 20:00-

etan izango dira Biterin. Asteazken eta ostegunerako sarrerak ere salgai daude. □

HERNANI INSTITUTUA

## Gurasoekin bilera 'ISO 9000' zertifikatuak dakarkienari buruz

INSTITUTUAK bilera informatibo egingo du gaur gurasoekin ISO 9000 kalitate zertifikatuari buruz. Institutuak duela gutxi lortu zuen agiri hori eta gaur gurasoei azalduko die horrek zer suposatzen duen hezkuntza zentru horren etorkizunean eta funtzionamenduan. Bilerak Karmelo Labakan da, 19:00etan.

Horretaz gain, Hezkuntza eta Kalitatea zikloaren barruan Juana Mari Maganto EHUKo irakasleak hitzaldia emango du bihar guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa hobetzeari buruz. Hitzaldia Biterin da, 18:30etan. □

BIDEXKA ELKARTEA

## Umeei mugak non jarri

BIDEXKA Psikologia elkarteak zenbait hitzaldi ematen ari da gai desberdinen inguruan eta gaur izango da azkenekoa. J.R. D'Oiarzabal eta Iñaki Biain umeen desarroiaren mugak non jarri azaltzen saiatuko dira. Bidexkak planteatzen duen eran, guraso guztiek seme-alabentzat onena nahi izaten dute, baina, horrek ez du esan nahi umeei dena libre utzi behar zaizkion. Gai hori tratatzeko, aurrena *La vida en rosa* pelikula ikusiko dute eta gero eztabaida etorriko da. Ekitaldia, gaur, 18:00etan Biterin. □

## Doberak, batzarra

DOBERA Euskara Elkarteak urteko batzarra egingo du ostiral honetan, Larramendi kalean. Aurten 10 urte bete dituen euskara elkarteak 2002ko balantzea egingo du, eta horrekin batera 2003ko egitasmoen berri ere emango du. Aurten, bestalde, zuzendaritza karguak berrikustea egokitzen da. Batzarra arratsaldeko 19:00etan izango da. Doberak bazkide guztiei dei egin die batzarrera azaltzeko. □



'Gerrarik Ez' lemaekin atzo Hernaniko Udaletxe aurrean egindako kontzentrazioa.

## Hernanin sindikatuek elkarrekin esan zioten gerrari ezetz

ATZO eguerdian ordubeteko lanuzteak, manifestazioak eta kontzentrazioak egin ziren gerraren kontra, EEBB eta Britainia Haundia Iraken kontra egiten ari diren gerra gelditzea eskatzeko. Sindikatuek bi deialdi egin

zizuten, ELA, LAB eta beste zenbait sindikatuk batetik, eta CCOO eta UGT bestetik, baina, Hernanin pankarta beraren atzean jarrita esan zioten gerrari ezetz plazan egindako kontzentrazioan.

Kontzentrazioan 200 la-

gun inguru bildu ziren eta lanuzteak sektore ezberdinetan izan zuen eragina: komertzio eta ostalaritzan, hezkuntzan, udal zerbitzu publikoetan, eta industrian ere bai, baina, txikiagoa. Sindikatuetako ordezkariak gustora

zeuden erantzunarekin eta aitortu dute deialdia behar bezala zabalteko aukerarik ez dela izan. Bestalde, CCOO eta UGTk atzo bertan zabaldu zuten greba orokorra dei-tuko dute estatu osoan, apirilaren 10ean. □

www.kronika.net  
Hernaniko  
Kronika  
Interneten helbide berrian

Allianz

ASEGURUAK

Agustin Ezponda  
AGENTZIA

Tel.: 943 557 326  
656 735 109

GOXOKIAK  
ROMBER  
OKINDEGIA

GOXOKIAK  
ALIMENTACION

Romber

Karmelo Labaka 6 - behea  
Tel. 943 331 123

MARI FER  
ARRANDEGIA

Nagusia 36  
943 55 04 89

Orkolaga 17  
943 55 27 41

ALZUEA  
TOLARE - SAGARDOTEGIA

Asteartetik Larunbatera  
irekita


Alzueta Sagardotegia S.L.  
Osinaga Auzoa, 7 • 20128 Hernani  
Tel./Fax: 943 55 15 02  
e-mail: alzueta@alzuetasagardotegia.com

SAGARDOTEGIA tolare  
IPARRAGIRRE

HERNANIKO  
SAGARDOA

OSINAGA AUZOA  
943 55 03 28

Asteazkenetik  
larunbatera  
zabalik.  
Larunbat  
eguerdian  
enkarguz.  
Tel. 943 55 03 28



Txus Congil, Joxan Rodriguez eta Duncan Sinclair atzo prentsaurrekoan.

## Eliza Ebanjelikoak droga-menpekotasunaren prebentziorako jardunaldiak antolatu ditu

- Datorren ostiral ilunabarrean eta larunbat goizean dira jardunaldi irekiak, Biterin
- Ongintzako Prebentzio sailaren babesa dute jardunaldiek.

HERNANIKO Eliza Ebanjelikoak jardunaldiak antolatu ditu datorren ostiral eta larunbaterako, droga-menpekotasunaren prebentzioaren inguruan. Ostiralean 19:30etan hasiko da jardunaldia eta lau parte izango ditu:

- 1) *Hernaniko droga-menpekotasunaren diagnostikoa*. Txus Congilek emango du. Congil Udaleko droga-menpekotasun teknikaria eta Asagintzako partaidea da.
- 2) *Prebentzioa 18 urtetik beharagoetan*. Omar Rusellek emango du. Rusell Madrilgo Udaletxeko droga-menpekotasuneko atentzio zentruko langile soziala da.
- 3) *Prebentzioa familian*. Yolanda Sotok emango du. Soto Psikologoa eta El Buen Samaritano elkarteko partaidea da.

4) Antonio Chimenok bere bizipenak kontatuko ditu. Chimenok hernaniarra drogaren menpean egona da eta gaur egun Sevillan bizi da.

Larunbatean, berriz, 10:00etatik 13:00etara izango dira jardunaldiak. Eztabaida seminario bat egingo da parte hartzaile guztien artean. Lehengo lan taldetan banatu eta Hernanin zer egin litekeen eztabaidatuko da. Gero, talde guztiak batera bildu eta ondorioak aterako dituzte.

### Aspalditik lanean

Joxan Rodriguezek atzo azaldu zuenez Hernaniko Eliza Ebanjelikoak urte asko daramazki droga-menpekotasunaren prebentzio lanean. Orain,

beren lana herriaren aurrera azaldu eta beste herritarrekin lan egin nahi dute. Dei egin zuten gaiarekin interesa duten hernaniar guztiei jardunaldietara azaltzeko.

Txus Congilek, Ongintzako Prebentzio Sailaren izenean, azpimarratu zuen instituzioek eta herriko taldeek elkarlanean funtzionatzearen garrantzia, eta prebentzio sailak herritarrengandik datozen inizatibak bultzatzen segiko duela. Congilek Hernaniko plan lokalari buruz ere hitz egin zuen. Prebentziorako plan lokala dagoeneko bukatu da eta ebaluaketa prozesuan dago orain. Datorren hilean Prebentzio kontseilua sortzekoa da eta Congilen hitzetan jardunaldi hauetako ondorioak kontuan hartuko dira. □

## Egunkariaren harpide egiteko kanpainak Udala eta gizarte eragileen babesa jaso du

- 200 harpide egitea da helburua
- Atzo prentsaurrekoa eman zuten Biterin
- Asteburutik aurrera herritarrek buzoian jasoko dute harpide egiteko eskaria.

EGUNKARIAREN aldeko batzordeak prentsaurrekoa eman zuen atzo Biterin 200 baitz harpidetza kanpaina aurkezteko. Nagore Rodriguezek hitz egin zuen batzordearen ize-nean eta bere esanetan orain arte egindako lana ez galtzeko aurrera begiratu behar da, "eta horretarako beharrezkoak dira irakurle, erosle eta harpidedunak". Batzordeak dio inoiz baino garrantzitsuagoa dela egunero Egunkaria erostea eta harpidedun egitea.

Egunkariaren proiektuan harpidetzak duen garrantzia kontuan hartuta, batzordea dagoeneko ari da harpide berriak egiten. Lan horretan, Udalaren eta hainbat gizarte eragileren babesa jaso du Egunkariaren aldeko batzordeak. Udalak justu Egunkaria itxi aurre hartan



Egunkariaren aldeko batzordeak, Udalak eta eragile sozialek harpidetza kanpaina babestu dute.

harpidetza kanpaina bultzatu zuen, eta orain berriro ekimen hura jarriko du martxan.

Asteburutik aurrera, herritarrek harpide egiteko orria jasoko dute buzoian, harpidetzari buruzko informazioarekin.

**Egunkariaren aldeko eguna** Harpidetza kanpaina apirilaren 12an bukatuko da eta egun horretan zenbait ekitaldi egingo dira herrian, Egunkaria itxi izana salatu eta herritarrek eskaini duten laguntza eskertzeko. □

## MAHAI TENISA



Erik Diez ezkerrean eta Aitor Mitxelena eskubian, txapelketan.

## Aitor Mitxelena eta Erik Diaz Gipuzkoako txapelkun

GIPUZKOAKO Mahai Tenis txapelketak jokatu dira asteburuan eta Aitor Mitxelena eta Erik Diez txapelkun gelditu dira buruz-buru. Taldeka ere hernaniarrek Atletiko San Sebastianekin jokatu zuten, eta hor ere txapela irabazi zuten, lasartearren kontrako finalean.

Aitor Mitxelenak jubentzetan irabazi zuen txapela, Aitor Valverderi irabazita. Binaka, berriz, biek jokatu zuten elkarrekin eta Gipuzkoako txapelkun gelditu ziren. Erik Diezek

kategoria infantilean atera zuen txapela eta binaka ere txapelkun gelditu zen, Iker Labargarekin batera.

Alebinetan ere hernaniarrek aurreko puntan ibili ziren. Binaka, Joseba Lizeagak eta Iñaki Zabaleta donostiarrek txapela irabazi zuten.

Emaitza horiek kontuan izanda, Gipuzkoako mahai tenis txapelketak benetan aho gusto gozoa utzi du Hernanin, eta hernaniarrek garbi erakutsi dute kirol horrek maila ona duela gure herrian. □

## HITZ BITAN

### ✓ ATLETISMOA

#### Von Wichmann eta Aldabe, aurrena Zarautzen.

Asteburu honetan eskolarteko atletismo probak izan dira Zarautzen, eta Mikel von Wichmann eta Eider Aldabek irabazi egin dute beren karreretan. Von Wichmann alebinetan gelditu da aurrena eta Aldabe infantiletan. Bestalde, infantiletan Txomin Lizeagak bigarren postua lortu zuen.

### ✓ GIMNASIA

#### Tejedor Euskadiko bigarren, Liga hasieran.

Aurreko asteburuan hasi zen Euskadiko Liga eta Jaione Tejedor bigarren gelditu da buruz buru, aro modalitatean. □

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

### ☎ FARMAZIAK

- Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
- Gaez: Tanco Urnieta. San Juan 36 ☎ 943 550942

## IRAGARKI MERKEAK

Pisu konpartitu baten bila nabil. Koldo. Deitu: 943 55 49 64

Desbrozadora bat daukat saltzeko. Bigarren eskukoa HONDA UM 536. Interesatuak deitu: 943 55 54 36

Neska bat behar dugu umeak zaintzeko, 8:00etatik 17:00etara. Deitu: 943 55 37 66 (Arratsaldeko 20:00etatik aurrera)

LAGUNTZAILEA, agentea edo Justizi-offiziala. Laster deialdiak. Euskal Herriko Auzitegiaren lana. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

AIREPORTUAN KONTROLATZAILEAK. AENaren deialdiak udaletan. Eskakizuna: Diplomatu edo lizentziatua. Erdi mailako ingelera. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GIDA-ESKOLA IRAKASLEA. Langabeziarik gabeko lanbide baten lana. Diru-sarrera oparoak. Presta zaitetz. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

BASOZAINA. Euskal Herriko parke eta Natur Babesguneetan lan egiteko. Eskakizuna: Eskola Graduata. Presta zaitetz. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

SUHILTZAILEAK. Euskal Herriko parkeetan lan egiteko. Lan-baldintza ezin hobek. Betebeharra: Eskola Graduata. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GARRAIOLARIA. Garraiolari profesional izateko gaitze-titulua lor ezazu ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

ADMINISTRARI laguntzaileak. Laster deialdiak zenbait udaletan. Eskakizuna: Eskola Graduata. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

UDALTZAINA bertako udaletan lan egiteko. Deialdiak laster. eskakizuna: Eskola Graduata. Presta zaitetz ADOZ 943 44 45 09

LIBURUTEGI laguntzailea zenbait udaletan. Laster deialdiak. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

ADMINISTRARIAK (teknikoak zein laguntzaileak). Bertako udaletan deialdiak zabalik. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GIDARIAK, elektrikariak, kontserjeak, langileak... Bertako udaletan subalterno bezala lan egiteko. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09